

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2467

IRAGARKIA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira ekoizpen bolumen handiko kimika organikoko zenbait instalazioen ingurumen-baimen integratuen berrikuspen-espeditentak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren arabera (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu edo lekualdatzeko, bai eta funtsean aldatzeko ere.

Ingurumen-baimen integratuaren helburua da baldintzak ezartzea atmosferaren, uraren eta lur-zoruaren kutsadura saihesteko, eta, hori ezinezkoa bada, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea eta kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea behintzat, ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua agintzen du ofizioz berrikus daitezela ingurumen-baimen integratuak, instalazio baten jarduera nagusiari dagokionez teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak argitaratzearen ondorioz. 2017ko azaroaren 21ean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2017ko azaroaren 21eko Exekuzio Erabakia (EB), zeinaren bidez ezartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekoizpen-bolumen handiko industria kimiko organikoari buruzko 2010/75/EB Zuzentarauaren esparruan teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onartutako Industriako Isurpenen Erregelamenduaren eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen Erregelamenduaren 16. eta 15. artikuluek arautzen dute berrikuspen-prozedura, eta gutxienez hogeit hamar eguneko jendaurreko informazio-aldia ezartzen dute.

Era berean, 2016ko ekainaren 9an, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2016ko maiatzaren 30eko 2016/902 Exekuzio Erabakia (EB), zeinaren bidez ezartzen baitira teknologia erabilgarri onenei buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren esparruan (sektore kimikoko hondakin-urak eta -gasak tratatzeko eta kudeatzeko sistema komunitarako zuzentaraua).

Horregatik guztiagatik, jendaurrean jarri behar dira eranskinean zehaztutako espeditentak, hogeit hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki irizitako alegazioak edo oharra aurkez daitezela. Espediente horiek ikusgai egongo dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa: (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 7a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.

2021eko apirilaren 30a, ostirala

ERANSKINA

EKOIZPEN-BOLUMEN HANDIKO KIMIKA ORGANIKOKO INSTALAZIOAK, ZEINEN
BERRIKUSPEN-ESPEDIENTEAK JENDAURREAN JARTZEN BAITIRA

Espedientea	Ingurumen-baimen integratuaren titularra	Jarduera	Herria/Udalerría
AAI00129	Bilbaína de Alquitrans SA	Kimika-produktu organikoen fabrikazioa	Barakaldo
AAI00131	Gunvor Biodiesel Berantevilla SLU	Biodiesel-ekoizpena	Berantevilla
AAI00173	General Química SAU	Produktu kimiko organikoen, ez-organikoen, oinarri fitofarmazeutikoko produktuen eta bioziden fabrikazioa	Lantarón
AAI00201	Lascaray SA	Kimika-produktu organikoen fabrikazioa	Vitoria-Gasteiz
AAI00322	Biodiesel Bilbao SL	Biodiesel-ekoizpena	Zierbena